


Eraikuntzaren kostuak % 0,6 jaitsi dira Euskal AEn 2023ko uztailan

2023ko uztailan, prezioak % 3,4 igo dira urtetik urterako ehunekoetan, 2022ko uztailaren aldean

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,6 jaitsi da 2023ko uztailan, aurreko hilaren aldean. 2022ko hil berarekin alderatuta, berriz, kostuak % 3,4 igo dira.

Eraikingintzako kostuak % 0,6 jaitsi dira hiletik hilerako ehunekoetan, eta Obra Zibilekoak % 0,5. 2022ko uztailarekin alderatuta, Eraikingintzako prezioak % 3,8 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 1,8.

**Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-
arteko aldakuntza-tasak sektoreka**
Ehunekoa



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean (2023ko ekaina), **lehengaien** kostuak % 0,8 jaitsi dira, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, konstanteak izan dira. Urtetik urterako ehunekoetan, aldiz, lehengaien kostua % 3,8 hazi da, eta eskulanarena % 2,1.

Lehengaien kostua % 0,8 gutxitu da hiletik hilerako Eraikingintzaren sektorean, eta % 0,7 Obra Zibilean. Urtetik urterako bilakaeran, Eraikingintzako lehengaien kostuak % 4,3 gehitu dira, eta Obra Zibilekoak % 1,8.

Insertatabla_21170

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehengaien prezioek azpisektore hauetan izan dituzte igoerarik handienak 2023ko uztailean, 2022ko uztailaren aldean: *Ez-metalezko mineralak eta Kautxua eta plastikoa* (% 10,8ko hazkundera bieran), *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 8,5koa) eta *Ez-metalezko industria* (% 8,3koa). Aitzitik, sektoreko lehengaiak diren produktuak ekoizten dituzten azpisektore nagusi hauetan jaitsi dira gehien prezioak: *Petrolioaren fintzea* (% 26,6ko jaitsiera), *Energia elektrikoa eta gasa* (% 21,3koa) eta *Metalgintza* (% 4,9koa).

Insertatabla_21171

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62